

## BILGUMA BEREZIAREN EGINTZA.



Uri ontako Euskal-itz jostaldien Bilguma dator gaur kontu ematera, bear dan errespetoarekiñ, leku au onratzen duten entzule guztiai, zér nolakoa dan, aurten, izkribatzalle, pintatzalle eta musikalarien indar-neurtzeetan, Batzar-epalle bereziak erabaki du ten sari-emaldia.

Irakurgai onenari eskeñitako *saria*, On Franzisko Lopez eta Alen jaunari eman zaio, «Lezoko Santo Kristoren eleizachoa» deritzaiona gatik, zeña dan izkera ederrean ta eroso antolatua. *Aldeera* irabazi du On Toribio Alzaga jaunak «Iziar» izendatzen dan, arretaz egintako pollita gatik.

Edozeñ gai ta neurritan jarritako biursakintzik onenarentza eskeñitako sarta irabazi du On Marzelino Soroa jaunak «Euskaldun zarra—gizona zera—egñik farra—guazen aurrera» azalkaitzat duela, aurkeztu duen *ziri-biursa* zorrotz eta gañ-gañeko saillaren egillea dalako. *Aipamen onragarri* bat eman zaio On José Artola eta Elizechea jaunari «Maite zagun euskera» azalkaitzat duten *ipui* alaiak gatik.

*Nafarroako Euskal-Elkargoak* amalaudunik onenarentzat agindutako sarta eraman du On Karmelo Echeagaray-koak «Nafarroari» izenzat duena gatik; *aldeera* On Franzisko Lopez eta Alen jaunak «Nafarroko ezkutuauren aurrean» azalkaitzat duenaren egillea dalako. Gai oni dagokionez, esantako bi moldaerak dira estimagarriak, bakoitza bere mallan.

Ill onen 15-ean, goizeko amaiketan, izandu zan, lenez aurretik otsandetu zan bezela, 15 urtetik berako neska-mutillen euskarazko

esamiña: aurkeztu ziran ogei ta amabi, eta guztiak irakurri eta izkribatu zuten ederki gure izkuntz maitean, beren artean egiñik esamiñ guztiz ona Alberto Garaizabal, Armando Larzabal, Ramon Tellería eta Juan Larrarte-k.

Pintatzalleen indar-neurtzean *saria* irabazi du On Manuel Ramos Artal jaunak «Lezoko Gurutzea» izenzat duen lan fiñ eta Lezoko eleizachoa bere inguruakiñ dan-dan bezela agertzen duena gatik.

Gañerako *sariak* jabegabetuak gelditu dira.

Au erabaki du, lan guztiak ikusi ondorean, Uri ontako Bilguma bereziak. *Bizi bedi Euskera.*

Donostian, 1889-ko Abenduaren 17-an.

Bilguma bereziaren izenean: **Manuel Gorostidi**, *Dianagusia*.—  
**Antonio Arzác**, *Goarpelaria*.

